7.- Bidegabekeria- edo indarkeria-egoerekiko kritiko agertzea eta aniztasuna onartzea eta errespetatzea; horrela, kultura arteko gizarte honetan, bere portaera bat etorriko da justizia-, berdintasun-, bake- eta elkartasun-balioekin.

4. ORIENTAZIO-ARLOAREN EDUKI-MULTZOAK

Pertsona bati banako pertsona gisa eta, aldi berean, gizarteko kide gisa hazi ahal izateko baliabideak edo bitartekoak ematea da hezteak. Ikastetxeak ikasleen gaitasunak garatzen lagunduko du, banakako desberdintasunak abiapuntu hartuta. Hori dela-eta, tutoretza ikasketa-prozesu bat da, eta garatuko ditugun gaiak ikastetxeko eremuetan edo testuinguruetan agertuko dira, ikasleek ikasketa esanguratsua izan dezaten. Gai horiek guztiak lau multzo hauetan bil daitezke:

1- Garapen pertsonala

Hazkuntza pertsonalarekin, arazoei aurre egiteko ahalmena hobetzearekin, erabakiak hartzearekin eta bizitzan zehar proiektu pertsonala egitearekin lotutako edukiak sartzen dira multzo honetan.

2- Lanbide-orientazioa

Eskolatze-prozesuak aurrera egiten duen heinean, ikasleak bere ikaskuntza ibilbidearekiko eta lanbide-etorkizunarekiko hartutako erabakiek gero eta garrantzi handiagoa izango dute; erabaki horiek hartzeko, hain zuzen, nork bere buruaz eta lan-munduaz duen ezagutza hartuko da oinarri.

3.- Besteekiko harremanak komunikazioa, talde-lana eta gatazken konponketa

Giza taldeen funtzionamenduarekin, elkarbizitza-arauekin eta gatazken azterketa eta konponketarekin lotutako kontzeptuak, prozedurak eta jarrerak daude jasota multzo honetan.

4.- Ikasketa-prozesuak

Oro har, eskola-errendimendua, agenda-erabilera, lankidetzat-taldeak, ikasketa-tekniken aplikazioa e. a. gaitasunekin lotutako edukiak dira.

5. TUTOREAREN ZEREGINAK

Tutorearen zeregin guztiak bakar batean laburbildu ditzakegu: ikasle bakoitzaren eta talde osoaren ikasketa- eta heldutasun-prozesuari jarraipena eta laguntza ematea. Izan ere, zuzenean ikasleekin egiten dituen ekintzak eta irakasleekin, familiekin eta kanpoko zerbitzuekin egiten dituenak funtsezko zeregin hori lortzeko egiten ditu.

Eremu bakoitzean tutoreek beteko dituzten zereginak hauek izango lirateke:

1.- Ikasleei lotuta:

- Ikastetxean eta lagun-taldean ondo integratzen laguntzea, eta ikastetxeko jardueretan parte har dezatela bultzatzea.

- Unerik larrienetan ikasleei aholkuak ematea: ikastetxe berrian sartzean, hezkuntza-ziklo edo –etapa aldatzean, hautazko ikasgaiak aukeratzean, lan mundura igarotzean...
- Ikasketei begira eta lanbide arloan informazioa eskuratzea erraztu eta erabakiak hartzeko ikaskuntza egoerak sortaraztea ikasleen auto orientazioa bultzatuz.
- Ikasleen ikasketa-prozesuen jarraipen orokorra egitea, hezkuntza-erantzun eta/edo laguntza egokiak emateko.
- Ikasleen eskaerak, kezkak, kexak... bideratzea, eta, taldeko ordezkariarekin eta ordezkariordearekin lankidetzan, gainerako irakasleen eta zuzendaritza taldearen aurrean bitartekotza egitea, sortzen diren gaietan.

2.- Ikasle-taldearen irakasleei lotuta

- Bere taldeko irakasle-taldea koordinatzea, bai programazioan, bai ebaluazioan, bai irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuko banakako egoeren eta egoera orokorren azterketan.
- Tutoretza-plana jakinaraztea, adostea eta garatzea, planetik sortzen diren jardueretan esku hartzera eta elkarlanean aritzera bultzatuz.
- Ikasleen ezaugarriei buruzko informazioa ematea maila horretako irakasleei, eta programazioan, ebaluazioan eta hezkuntza-harremanean duten inplikazioa jakinaraztea.
- Bere taldeko ikasleen ebaluazio-prozesua koordinatzea, eta ebaluazio prozesua egiteko saioak antolatzea eta saioen buru izatea.
- Curriculumaren egokitzapenetan laguntzea.
- Ikasleen ebaluazio-prozesua koordinatzea, eta, irakasle-taldearen aholkularitzarekin, eskola-orientazioko banakako txostena egitea, familiak jakinaren gainean jartzeko eta ikasleak orientatzeko

3.- Familiei eta/edo legezko tutoreei eta beste gizarte-eragile batzuei lotuak:

- Ikastetxearen eta hezkuntza-etaparen berri ematea gurasoei eta/edo legezko tutoreei.
- Banakako hezkuntza-prozesuaren jakinaren gainean jartzea, eta lankidetzat eskatzea.
- Familiak eman dezakeen informazioa jasotzea, ikaslea eta haren familia testuingurua hobeto ezagutzeko.
- Gurasoei aholkularitza ematea; besteak beste, alderdi hauetan: ikasketa- eta portaera-arazoen konponketan, ikasketen antolaketan eta plangintzan, eta ikasketa- eta lanbide-arloko erabakiak hartzeko garaian.
- Eskola-jarduerekin lotutako gai guztiei buruzko informazioa ematea ikasleei, haren gurasoei eta/edo legezko tutoreei, haiek irakasleengana edo ikastetxeko aginte-organismoetara jotzeko

duten eskubidearen kalterik gabe. Tutorearen asteroko bisitaren ordutegia jakinarazi beharko die ikastetxeak familiei.

- Familien parte hartzea bultzatzea ikastetxean.

6. ANTOLAKETA

1. Talde edo klase bakoitzeko irakasle-taldeko irakasle bakar bat izango da ziklo osorako tutorea.

2. Talde bakoitzaren tutoreen izendapena ikastetxeko zuzendaritzak egingo du Ikasketa Burutzak hala eskatzen dionean.

3. Tutoretza lankidetzan oinarrituta planteatzea eta garatzea egoki iruditzen zaigu. Helburu horrekin: Orientatzailea mailako tutoreen ordezkariekin astero bilduko da haien tutoretza-lanean laguntzeko, baliabideak eskaintzeko eta sortu diren arazoak aztertzeko.

4. Tutoretzari eskainitako denbora:

4.1. Ikasleekin: Astean saio bat taldearekin (aurrerago zehazten dira edukiak mailakatuta)

4.2. Gurasoekin:

- Ikasturte hasierako bilkura mailaka:
 - Bertaratuak eta tutoreak aurkeztu.
 - Tutoreak eman beharreko informazioa:
 - Ikastetxearen aurkezpen orokorra, organigrama,...
 - Taldearen eta irakasleen eskola-ordutegia, ebaluazioak, bisita-orduak,...
 - Taldearen ezaugarri orokorrak: ikasle kopurua, errepikatzen dutenak, aukerazkoak eta hautazkoak,...
 - Ikastetxeko elkarbizitza arauak.
 - Irteerak, baimenak irteera hauetarako.
 - Seme-alabei hezkuntza prozesuan nola lagundu.
 - Beharrezko diren argibide guztiak.
 - Inikaren erabilera
 - Gurasoekin elkarriketa bakarka, lehen eta hirugarren ebaluaketan guztiekin, bigarrenengan beharren arabera. Gai hauetaz
 - Errendimendua orokorrean eta jakintzagai bakoitzean.
 - Lan egiteko eta ikasteko ohiturak.
 - Jarrerak: ikastetxean kideekiko, irakasleekiko, eskolako lanarekiko,...; etxean familiarekiko, ikastetxearekiko eta lagunekiko.
 - Kezkak, arazoak.
 - Espektatibak, interesak, zaletasunak, etab.
 - Ikaskuntza prozesuko zailtasunak.
 - Jarduera plana. Aldatzeko, hobetzeko edo jarraitzeko proposamenak.
 -

- Hirugarren eta laugarren kurtsoko gurasoekin orientazio bilera: bilera hau orientatzaileak burutzen du bigarren ebaluaketan.
 - Hezkuntza organigrama
 - 4. BDHko ikasgaiak. Aukerazkoak.
 - Batxilergoko antolaketa. Modalitateak, ikasgaiak, selektibitate,...
 - Lanbide heziketa. Erdi eta Goi mailako zikloak. Antolaketa, familiak, iraupena,...
- Laugarren mailako gurasoekin bakarka: orientazio kontseilua.

Saiatuko gara ahal den neurrian bilera guztiak presentzialak egiten..

1. HELBURUAK MAILAKA

Hezkidetza maila guztietan landuko da (ikus Hezkidetza Plana).

1.DBH

- Ikaslearen moldaketa eta integrazioa areagotzea, taldean, gelan eta ikastetxean.
- Etapa berriaren berezitasunak ezagutzea. Ebaluazioa, promozioa,...
- Talde kohesioa lortzeko talde dinamika desberdinak lantzea.
- Ikasleak bere buruarekiko irudi egokia lor dezan: autoestimua, autonomia....lantzea.
- Eskola eskakizun berrien aurrean ikaslearen erantzuna emateko gaitasuna areagotzea egokiak diren bideak eskainiz: materialaren erabilera, denboraren antolaketa,....
- Bizitzarako beharrezkoak diren trebetasuna sozial desberdinak lantzea.
- Pertsonen desberdintasunak ezagutu, baloratu eta errespetatzea. Beste ikaskideen iritziak errespetatu eta nork bereak adieraztera bultzatzea.

2. DBH

- Ikaslea zentroan egokitu dadila. Institutuaren arauak ezagutu eta errespetatzea.
- Elkarbizitzarako hezkuntza sustatzea. Gizartean onartzen diren eta elkarbizitza baketsu eta egokia ahalbideratuko duten jokabide, jarrera eta baloreak bultzatzea.
- Talde kohesioa lortzeko talde dinamika desberdinak lantzea.
- Ikaste ohiturak eta hainbat ikasketa estrategia lantzea.
- Trebetasuna sozial desberdinak lantzea.
- Osasunarekin, kontsumoarekin eta ingurumenarekin zerikusia duten ohiturak kritikoki baloratzea.
- Sexu arteko desberdintasunak ezagutu eta errespetatzea, jarrera sexistak baztertuz
- Sexu heziketa:
 - Norberaren gorputza ezagutu, baloratu eta onartzea.
 - Gizakien sexu desioa eta horren adierazpenak ezagutu eta aztertzea.
 - Sexu erantzunarekin zerikusia duten afektu eta emozioak ezagutzea (desioa, erakarpena, maitasuna,...)
 - Sexu harremanen arriskuak eta saihesteko jarri behar diren neurriak ikastea.

3. DBH

- Ikasle berriak, errepikatzaileak taldean eta zentroan egokitzea.
- Trebetasuna sozial desberdinak lantzea.
- Errespetuan eta elkarriketan oinarrituriko elkarbizitza sustatzea.
- Elkarbizitzari buruzko ikuspegi globala ezarri, eta prebentzio jarduerak eta hobekuntza-neurriak proposatzea.
- Genero indarkeriaren prebentzioa, antzematea eta dagokionean aurre egitea.
- Ikasleak beren etorkizunari buruzko erabakiak hartzeko prestatzea eta laguntzea.
- Aukerako gaiak ongi ezagutzea eta aztertzea hurrengo ikasketen garapena ongi bideratzeko.
- Ikaste ohiturak eta hainbat ikasketa estrategia lantzea.
- Ikasleen interesak piztu bere bokazio, interesak ezagutu ditzan.

4. DBH

- Ikasleari bere buruari buruzko irudia egiten laguntzea, bere gaitasunak, interesak, mugak....
- Errespetuan eta elkarriketan oinarrituriko elkarbizitza sustatzea.
- Elkarbizitzari buruzko ikuspegi globala ezarri, eta prebentzio jarduerak eta hobekuntza-neurriak proposatzea.
- Derrigorrezko eskolatzea amaitzean, hezkuntza sistematik eskaintzen zaizkion aukera desberdinak ezagutzea.
- Ikasleari bere ibilbide akademiko pertsonala finkatzen laguntzea, etorkizunerako dituen helburuen betekizunen eta baldintzen arabera.
- Ikaste ohiturak eta hainbat ikasketa estrategia lantzea.
- Erabakiak hartzeko gaitasun eta trebetasun pertsonalak garatzea.

2. EDUKIAK MAILAKA (Materiala Aralar orientazio sitean aurkitzen da)

3. METODOLOGIA

Planteamendu metodologikoan kontuan hartu behar dira irakaskuntza bakoitzaren berezko ezaugarriak; horregatik, beharrezkoa da estrategia didaktiko integratzaileetan ahalegin bat egitea, ikasleen funtsezko gaitasunak eta ezaugarriak, taldekoak zein banakakoak, lantzeko.

Aurreikusitako helburuak lortzen direla bermatzeko, garrantzitsua da planteamendu globalizatzaile bat erabiltzea, baliabide motibatzaileak eta bateratzaileak erabiliz, testuinguru errealei eta ikasleengandik hurbil daudenei erreferentzia eginez. Irakasle-taldeak modu koordinatuan jardun behar du, ikasleen aniztasun zabalari eta beharrei erantzuneko dien planteamendu metodologikoa ahalbidetuz.

Irakasleen programazioa eta jarduna egituratzeko printzipio gisa, honako hauek jaso behar dira:

- Jarduera, hezkuntza-prozesuaren muina izango da.
- Taldea hezkuntza-tresna gisa: ahaleginaren zati handi bat norberaren eta taldearen nortasun positiboa eratzen ematea, proposatutako jardueretan aktiboki eta modu integratuan parte hartu ahal izateko.

- Tutoretza ardatz egituratzaile gisa, adeitasun eta konfiantza giroa, pertsonen arteko azterketarako eta hausnarketarako espazioa eta parte hartzeko eta elkarriketarako hezkuntza esparrua bultzatzera bideratua, autoestimua, motibazioa, integrazioa, inplikazio soziala eta autokontrola garatzen dituzten ekintza pertsonalizatuen bidez.
- Aniztasuna kontuan hartu behar da, eta hainbat motatako kolektiboei arreta emateko gai diren lan-aukera ugari eskaini behar dira.

Hauek dira Tutoretza Plana garatzeko irakasleen hezkuntza-esku-hartzea gidatu behar duten beste printzipio orokor batzuk:

- Ikasleen garapen-maila, ezagutzak eta interesak kontuan hartzea.
- Lan-proposamenek eta jarduerak erronka eta erronka txikiak izan behar dituzte ikasleentzat.

Garrantzitsua da ikasleei pentsatzea, hausnartzea edo ikertzea eragingo duten gaiak planteatzea. Norberaren ingurunea ikerketa- eta esperientazio-iturri gisa erabiltzea. Ikasleen interakzioa sustatzea. Talde-lanak aukera ematen du ikasleen artean harreman hobeak ezartzeko, gehiago ikasteko, motibatuago sentitzeko eta norberaren autoestimua areagotzeko. Talde-lana emankorra da zereginak analisirako eta eztabaidarako elementuak ekartzea ahalbidetzen duen erreferente komun batekin antolatzen badira, eta prestakuntzakoa da soilik kideen banakako ahaleginean oinarritzen bada.

Metodologiak ikasleen parte hartzea bultzatuko du, aktiboa izango da, ikasleek autonomia eta ekimen pertsonalerako gaitasuna garatzea bideratuko duena.

Garrantzitsua da irakasleek ikasleei laguntzea beren gaitasunak aurkitzen, lan-ohitura berriak hartzea indartuz eta motibatuz.

4. TUTORETZA-PLANAREN EBALUAZIOA

Ebaluazioa jarraitua izango da eta orientatzaileak eta tutoreak egiten dituzten koordinazio-saioetan burutuko da.

Ebaluazioa kualitatiboa izango da, eta datuak biltzeko tresnen bidez egingo da, ondoren gelan eta tutoretzak koordinatzeko saioetan aztertu eta eztabaidatzeko.

Ikasturtean zehar, ikasketa-burutzak tutoretza-ekintzaren garapenaren jarraipena egingo du, orientazio-sailaren laguntzarekin, eta tutoreak eta ikasleek behar dituzten laguntzak eta baliabideak emango ditu.

Ikasturtea amaitzean, Orientazio Departamentuak azken memoria egingo du. Memoria horretan, lortutako lorpenei buruz irakasleek egindako hausnarketaren laburpena egingo da. Bertan, aurkitutako zailtasunak, eragina izan dezaketen faktoreak eta, hala badagokio, planean aldatu beharko diren alderdiak azalduko dira.

Memoria horretan tutoreen ikuspuntua (egindako lana, lortutako helburuak, aurkitutako zailtasunak ...) eta ikasleen ekarpenak jasoko dira.

Ebaluaziotik ateratako ondorioak kontuan hartuko dira hurrengo ikasturteetan planean beharrezko aldaketak eta doikuntzak egiteko.

Ebaluazio-irizpideak:

- Proposatutako helburuen betetze-maila.
- Proposatutako jarduerak ikasleen beharretara egokitzea.
- Programan parte hartzen duten sektoreen arteko koordinazio-maila. Tutoreen bileren eraginkortasuna tutoretza-plana antolatzeke eta garatzeko.

Ebaluazio-prozedura:

- Ikasleak: galdetegi bat emango zaie, helburuak, metodologia eta jardueren garapena baloratzeko.
- Tutorea: ikasturtean egindako lana baloratuko duen txostena egingo du (taldearekin egindako saioetan, mailako tutoretza-saioetan, familiari arreta emateko saioetan).
- Orientazio Saila: ikasleek eta tutoreek emandako datuekin amaierako memoria bat egingo da.

9.3. IKASLEEN HARRERA ETA AGURRA

Ikasleen harrera lehen hezkuntzatik bigarren hezkuntzara

ZER	NOLA	NORK	NOIZ
Matrikula kanpaina	Gurasoekin jatorriz eskoletan bilera	DBHko zuzendaritza eta orientatzailea	Otsaila-martxoa
Aukerazko ikasgaien azalpena eta aukeraketa	Institutuan, honela ikastetxea ezagutzen dute	DBHko ikasketa burua eta orientatzailea	Apirila-maiatza
Ikasleei harrera	- DBHko ezaugarriak LHkoei azalduz - Hamaiketakoa eginez eta patioan jolastuz	LHtik etorri behar duen ikaslearen herri bereko DBHko ikasleak azalpena egiñez.	Apirila-maiatza
LH ko ikasleak Orendainera	Ikasleen antolaketa	Eskola guztietako 6. mailako ikasleak	Maiatzean
Eskolaritate liburuak eta ikasleen liburuak eta aktak	Eskutitza	Idazkariak	Ekainean
Ikasle berriei etxeetara eskutitza bidali ikasturte hasiera eta liburuen zerrenda adieraziz	Eskutitza	Idazkaritzatik	Uztailan
Udako neurri osagarrien balorazioa	- LHko irakasleek lana baloratu ondoren DBHko tutoreei informea pasatuz. Gainditu gabeko ikasgaiak bakarrik pasatuko dituzte. - DBHko irakasleek gainditu gabeko ikasgai horiek kalifikatuz.	LHko irakasleek eta DBHkoek.	Irailean

4. DBH-KO IKASLEEI AGURRA

ZER	NOLA	NORK	NOIZ
DBH bukatu dutenei agurra	- Oroigarria emanaz - Bertsoak kantatuz - Ikastetxeko ikasle guztiekin hamaiketakoa eginez	- Atezainak (oroigarria) - Euskara departamentuak (bertsoak) - Zuzendaritzak (hamaiketakoa)	Ekainean

9. 4. HIZKUNTZA NORMALKUNTZA PROIEKTUA - 2022-2026



IKASTURTEKO PLANA 2022-2023 IKASTURTEA

A. IKASTURTE HONETAKO DATU OROKORRAK

Ikastetxea: 012951 - IES Aralar BHI

Helbide postala: ARALAR Z/G

Berritzegunea: G06 LASARTE berritzegunea

Faxa: 943654625

Posta kodea: 20260

Herria: Alegia

Telefonoa: 943650078

ePosta: 012951aa@hezkuntza.net

Datuak

Ikasle kopurua: 201

Irakasle kopurua: 36

Zenbat HNAT(ikasle txea Ulibarrin dagoenetik, zenbat HNAT desberdin izan ditu?): 2

Zuzendaria: Irene Marcos González

Ikasle batzordearik badago? Bai

Zenbat kidez osatzen da ikasle batzordea? 12

Guraso batzordearik badago? Ez

Zenbat kidez osatzen da guraso batzordea? 0

Irakasle taldea

Talde izena	Kopurua
Irakasle taldea	36

Ikasgelak

Ikasmaila	Letra	Eredua	Ikasle	Izena
DBH1	B	D eredua	22	
DBH1	A	D eredua	23	
DBH2	C	D eredua	17	
DBH2	B	D eredua	17	
DBH2	A	D eredua	18	
DBH3	C	D eredua	21	
DBH3	A	D eredua	13	
DBH3	B	D eredua	21	
DBH4	B	D eredua	18	
DBH4	C	D eredua	16	
DBH4	A	D eredua	16	

HNAT-AREN ETA HNB-REN DATUAK

HNATaren Datuak

Izena: Ana Isabel Lehen deitura: Arakistain

Bigarren deitura: Jauregi NAN Zenbakia: 72436725L

Noiztik zara HNAT? 2020-2021 Ulibarri programaren baitako formazioa jaso duzu? Bai Zenbat urte daramazu ikastetxe honetan? 4

HNBko kide izan zara? Hala balitz, zenbat urtez? 4 **HNBren Osaera**

Izena	Lehen abizena	Bigarren abizena	Nan	Estamentua	Aurreko urteotan
Ana Isabel	Arakistain	Jauregi	72436725L		Bai
Aritz	Urien	Egia	30659180L	Irakaslea	Bai

HNAT eta batzordekideen dedikazio orduen banaketa

Dedikazio osoa

Bilera orduak: 1.0 ordu / Maiztasuna: Astero Batzorkideen dedikazioa astero: 0.0 ordu **Batzordeko bilera**

Asteko eguna	Hasiera	Bukaera	Maiztasun a
--------------	---------	---------	----------------

1. orrialdea 12 (e)



Asteko eguna	Hasiera	Bukaera	Maiztasun a
Ostirala	12:30	13:30	Astero

Batzordekideen dedikazioa

Izena	Lehen abizena	Bigarren abizena	Estamentua	AI	Ar	Az	Og	OI	H
Aritz	Urien	Egia	Irakaslea						0.0
Ana Isabel	Arakistain	Jauregi							0.0

1. Ikastetxearen antolamendu eta erabilera koherenteak

1.1. Ikastetxearen antolamendua

Eragin esparrua	Helburua	Ebaluazio adierazlea	Jarduera	Nork	Noiz	Baliabideak
Organo Gorena edota Eskola Kontseilua	Eskola Kontseiluan ikasturtero aurkezten den HNParen Urteko Planari buruzko informazio laburra, zehatza eta argia guraso guztiei helaraztea.	Informazio argi eta zehatza eman da.	Urteko Planari buruzko informazio zehatza eman	HNB eta web orriaren arduraduna	Ikasturte hasieran	INIKA eta ikastetxeko web orria

Organo Gorena edota Eskola Kontseilua	Eskola kontseiluan erabiltzen den dokumentazioa euskaraz egotea eta euskaraz sortzea.	Dokumentazioa euskaraz dago eta euskaraz sortzen da.	Eskola kontseiluko bilera deiak eta aktak euskaraz idatzi.	Eskola Kontseiluko kideak	Ikasturtean zehar	Ordenagailua, papera...
Organo Gorena edota Eskola Kontseilua	Eskola kontseiluko kideek HNP ezagutu eta onartzea. Iradokizunak jasotzeko bidea ematea	Bete ala ez.	Lehen bileran kideek HNP aurkeztu eta beraien zuzenketak jaso ondoren, onartu.	Zuzendaritza	Urrian	HNParen kopia banatuko da.
Zuzendaritza	Zuzendariak (edo ikasketa buruak) Normalkuntza Proiektua babestea.		Zuzendariak Normalkuntza Proiektua babesteko dagozkion lehentasunak eman, dedikazio orduen banaketak errespetatzen ditu, plana gainbegiratu.	HNAT eta zuzendaria	Ikasturtean zehar	HNP
Barne bilerak	HNBak eta HNPAk osatu eta gauzatzeko prozesuan eskolako estamentuan parte hartzea eta dinamizatzea	Bilerako balorazioak	Hausnarketa saioak egin, HNP urteko plana ebaluatzeko eta zuzendaritzari neurri zuzentzaileak proposatzeko.	HNAT	Maiatzean	HNBko bilera saioak, Proposamen orriak.

2. orrialdea 12 (e)



ulbarri programa



Eragin esparrua	Helburua	Ebaluazio adierazlea	Jarduera	Nork	Noiz	Baliabideak
Barne bilerak	HNBak eta HNPAk osatu eta gauzatzeko prozesuan eskolako estamentuan parte hartzea eta dinamizatzea	HNBaren osaera	Irakasleen eta ikasleen HNBA berrosatu ordezkariekin berrosatu.	HNAT	Urrian	Giza baliabideak

Barne bilerak	Material berri guztia euskara txukun eta egokian sortzea.	Aktak, oharrak zenbatu	Aktak, tutoretzarako materiala, gurasoentzako oharrak banatu aurretik, txukun dauden ziurtatu eta behar balitz zuzendu.	HNB	Ikasturtean zehar	Zuzentzaileak, "Zalantza dantza", "Euskara batuaren eskuliburua"...
Dokumentazioa	Hizkuntza Normalkuntzarako Proiektuak ikastetxeko beste proiektuetan isla izan dezan bermatzea.	Hizkuntza Normalkuntzarako Proiektuak ikastetxeko beste proiektuetan isla du.	Klaustroan HNP aztertu eta beste proiektuetan txertatu.	Klaustroa	Ikasturtean zehar	HNP eta gainerako proiektuen dokumentuak.
Dokumentazioa	Ikastetxeko dokumentazioa aztertzea, euskaraz sortutakoa dela eta euskarazko maila zuzena, egokia eta jatorra duela ziurtatuz: Dok Administrazioa, Ekonomia.	Dokumentazioaren kopurua eta egokitasuna.	Ikastetxean dauden dokumentu iraunkorren azterketa egin, euskararen egokitasunaren aldetik: Tutoretza Plana, Hezikidetza Plana, Hizkuntza Proiektua, Eleaniztasunerantz Plana, HSBP-PREE. (eskabidea, proiektua eta txostena) ...	HNB	Ikasturtean zehar	Dokumentuak
Hizkuntza-paisaia	Ikastetxeko paisaia linguistikoa euskaraz mantendu.	Paisaia linguistikoa % 100ean euskaraz dago.	Paisaia euskara hutsez egotea edota euskaraz egoteari lehentasuna eman.	HNB eta klaustroa	Ikasturte hasieran	Errotuluak, paperak...
Hizkuntza-paisaia	Interfazea edo informatika zerbitzua euskaraz dagoela ziurtatzea.	Ordenagailu guztiak euskaraz egotea.	Ordenagailuetan behar diren aldaketak egin.	HNB eta informatika irakaslea	Ikasturtean zehar	Ordenagailuak
Bestelakoak	Hizkuntza Normalkuntzararen egituran, ikastetxe osoaren inplikazioa lortzea normalizazioaren bidean: Batzordeko lanak partaide guztien	Batzordeko lanak partaide guztien artean modu egokian banatuta daude.	HNParen berri eman ikasturte hasieran ikastetxeko kide guztiei.	HNB	iraila-urria	HNParen kopia.

	artean modu egokian banatzea.					
--	--	--	--	--	--	--

1.2. Normalizazioa sustatzeko erabakiak

Eragin esparrua	Helburua	Ebaluazio adierazlea	Jarduera	Nork	Noiz	Baliabideak
-----------------	----------	----------------------	----------	------	------	-------------

3. orrialdea 12 (e)



ulizarri programa



Eragin esparrua	Helburua	Ebaluazio adierazlea	Jarduera	Nork	Noiz	Baliabideak
Normalizazioarako egitura	HNParen garapenerako diru beharrak lortzea.	HNP-ko gastuak aurkeztu.	Diru laguntzak lortzeko deialdietan parte hartu.	HNB	Ikasturte hasieran	Deialdiak, fakturak...
Normalizazioarako egitura	Hezkuntza komunitate osoak euskara hizkuntza nagusia izateko lan egitea	Erabilera neurketak eta ekimenetan izandako partaidetza	Ikasturteko plangintzan jasotakoa aurrera eramatea	HNB eta zuzendaritza taldea	Jarduerak burutu ondoren	Ikasturteko plangintzan agertzen direnak
Normalizazioarako egitura	Hizkuntza Normalkuntza ko Urteko Planaren Memoria prestatzea eta honen emaitzak Memoria orokorrean ere txertatzea.	Kideen balorazioa	Urteko datuen hausnarketa egin eta gero, laburpena (ppt, grafikoa, kartela ...) prestatu, behar den tokian aurkeztu (Eskola Kontseiluan, Klustroan ...).	HNB	Ikasturte bukaeran	HNP eta galdetegiak
Normalizazioaren bermea ikastetxeetako dokumentu ofizialetan	HNP eta Urteko Plana aurrekontuan sartzea.	Aurrekontuan bilduta geratu den ziurtatu da.	Administrazioari aurreikusitako gastuak adierazi.	HNAT eta Zuzendaritza	Iraila	Urteko Plana eta aurrekontuak
Normalizazioaren bermea ikastetxeetako dokumentu ofizialetan	Ikastetxeko Curriculum aberastea, euskararen normalkuntza denon egin beharra dela kontuan hartuta.	Curriculumaren euskal dimentsioaren garrantziak ohartarazi dugu.	Ahokotasunaren trataeraren lanketa era formalean zein informalean bultzatu eta Curriculumean txertatu.	HNB eta mintegiak	Ikasturtean zehar	Curriculum, EBET-eren proposamena...

Normalizazioaren bermea ikastetxeetako dokumentu ofizialetan	Ikastetxeko Curriculumak aberastea, euskararen normalkuntza denon egin beharra dela kontuan hartuz.	Erabilera okerra zuzentzeko neurriak prestatuta daude, eta aplikatzen dira.	Euskararen erabilera egokia eta zuzena lantzeko metodologia eta ekimenak jaso.	HNB eta mintegiak	Ikasturtean zehar	Metodologia desberdinak, programazioak...
Normalizazioaren bermea ikastetxeetako dokumentu ofizialetan	Metodologia aktiboa eta ahozkotasa areagotzea curriculumaren arlo guztietan	Mintegietan hartutako erabakiak programazioetan txertatu eta burutzea.	Unitate didaktikoak egiterakoan metodologia aktiboa eta ahozkotasa areagotzeko ekimenak kontuan hartu.	Zuzendaritza eta mintegi buruak	Ikasturtean zehar	Programazio didaktikoak
Normalizazioaren bermea ikastetxeetako dokumentu ofizialetan	Metodologia aktiboa eta ahozkotasa areagotzea curriculumaren arlo guztietan.	Mintegietan hartutako erabakiak programazioetan txertatu eta burutzea.	Mintegika ahozkotasa lantzeko erabakiak burutu.	Mintegi buruak eta arloetako irakasleak	Ikasturtean zehar	Mintegiak eta programazioak
Normalizazioaren bermea ikastetxeetako dokumentu ofizialetan	Urteko planaren ebaluazioa jaso eta klaustroari, zuzendaritzari eta Eskola Kontseiluari aurkeztea.	Urteko memorian aurkeztu eta jaso da.	Urteko planaren ebaluazioa egin, bildu eta banatu.	HNAT	Ekaina	Urteko plana

1.3. Kanpoko eragileekin harremanetarako hizkuntza-irizpideak

4. orrialdea 12 (e)



ulbarri programa



Eragin esparrua	Helburua	Ebaluazio adierazlea	Jarduera	Nork	Noiz	Baliabideak
Beste ikastetxeekin	Ikastetxeak inguruko beste ikastetxeekin dituen harremanak euskaraz gauzatzea beti.	Bete ala ez.	Hasierako hitza beti euskaraz luzatu eta horrela jarraitzeko bide eman.	Irakasleak	Ikasturtean zehar	Hitza

Beste ikastetxeekin	Ikastetxeak inguruko beste ikastetxeekin dituen harremanak euskaraz gauzatzea beti.	Bete ala ez.	Idatzizko dokumentazioa euskaraz bete.	Unean dagokion irakasle edo administrariak.	Ikasturtean zehar	Dokumentuak
Aholkularitza eta ikuskaritza zerbitzuekin	Ikastetxeak berritzegun ekin dituen harremanak euskaraz gauzatzea beti.	Erabilitako dokumentuak.	Lehenengo hitza beti euskaraz luzatzea eta horrela jarraitzeko bide eman.	Unean dagokiona	Ikasturtean zehar	Hitza
Administrazioarekin eta instituzioekin	Ikastetxeak administrazioarekin dituen harremanak euskaraz gauzatzea beti eta ahozkoak ahal den guztietan.	Bildutako dokumentuak	Hasierako hitza beti euskaraz luzatu eta horrela jarraitzeko bidea eman.	Unean dagokiona	Ikasturtean zehar	Hitza eta ordenagailuak.
Elkarteekin. Hornitzaileekin edota enpresekin	Ikastetxeak instituzioekin dituen harremanak euskaraz gauzatzea beti eta ahozkoak ahal den guztietan.	Bildutako dokumentuak	Lehenengo hitza beti euskaraz luzatu eta horrela jarraitzeko bidea eman.	Unean dagokiona	Ikasturtean zehar	Hitza eta ordenagailua.

1.4. Hizkuntza-irizpideak ikastetxearen eremu digitaletan

Eragin esparrua	Helburua	Ebaluazio adierazlea	Jarduera	Nork	Noiz	Baliabideak
Ikastetxearen webgunea, sare sozialak eta harremanetarako tresna digitalak	Ikastetxearen webgunean, sare sozialetan eta harremanetarako tresna digitaletan euskararen presentzia areagotzea	Behaketa	Ikastetxearen webgunea, sare sozialak eta harremanetarako tresna digitalak aztertu eta euskararen presentzia areagotu.	HNB eta euskarriaren arduradunak	Ikasturtean zehar	Ordenagailua

Funtzionamendurak o sistema operatibo, programa eta aplikazio informatikoak	Sistema operatibo, programa eta aplikazio informatiko gehienak euskaraz izatea.	Behaketa	Sistema operatibo, programa eta aplikazio informatiko gehienak euskaraz instalatu.	HNB eta Informatika irakaslea	Ikasturtean zehar	Ordenagailua
---	---	----------	--	-------------------------------	-------------------	--------------

5. orrialdea 12 (e)



ulbarri programa



Eragin esparrua	Helburua	Ebaluazio adierazlea	Jarduera	Nork	Noiz	Baliabideak
Hizkuntzaren kalitatea hobetzeko tresna digitalak (itzultzaile, zuzentzaile, hiztegi digitalak...)	Hizkuntzaren kalitatea hobetzeko tresna digitalen (itzultzaile, zuzentzaile, hiztegi digitalak...) berri ikastetxeko kide guztiei.	Galdetegia	Tresna digitalen (itzultzaile, zuzentzaile, hiztegi digitalak...) berri eman.	HNB	Lehenengo hiruhilekoan	Tresna digitalak, posta elektronikoa...

2. Eskolako kideak eta eremu didaktiko-metodologikoa

2.1. Irakasleak: motibazioa, jarrerak, portaerak eta emozioak

Eragin esparrua	Helburua	Ebaluazio adierazlea	Jarduera	Nork	Noiz	Baliabideak
Esku-hartzeak ikasgelan	Irakasleak arnasmunean bizi direla eta eragile direla jabetzea.	Ikasle, irakasle eta GALTZAUNDIKO arduradunaren balorazioa.	EUSLE programan parte hartu.	Irakasleak eta GALTZAUN Dik o arduraduna	GALTZAUN Dik proposatuta ko hilabetea.	Mingaina, belarriak eta ordenagailua.
Esku-hartzeak ikasgelan	Irakasleak hizkuntza eragile bezala aitortzea.	Euskararen erabilera areagotu da.	HEDATU programako unitate didaktikoak landu.	UEMA eta euskara irakasleak	Ekaina	UEMAko unitate didaktikoak
Esku-hartzeak ikasgelan	Irakasleek normalkuntza batzordea k antolatutako ekintzen ebaluazioan parte hartzea.	Inkestaren erantzunak eta emaitzak.	Tutoretzako orduan galdetegia banatu eta betetzen lagundu.	HNB eta tutoreak	Ekaina	Google drive

Esku-hartzeak ikasgelan	Ikasleen parte hartzea bultzatzea normalkuntza o ekintza guztietan.	Kontabilizazioa	Geletako ordezkariak Ulibarri programaren berri ematea eta urteko plangintzan parte hartzea animatu.	HNAT eta HNB	Lehen hiru hilekoan	Bilerak
Esku-hartzeak ikasgelaz kanpo	Ikasleak arnasmunean bizi direla eta eragile direla jabetzea.	Ikasleen eta GALTZAUNDIko arduradunaren balorazioa.	Ikasgelaz kanpo ere euskaraz hitz egin ikasle EUSLEarekin.	Ikasle EUSLEA	GALTZAUN DIK proposatuta ko hilabetea.	Mingaina, belarria...
Esku-hartzeak ikasgelaz kanpo	Ikasleak normalkuntza batzordean ordezkariak izatea.	Bileretan parte hartzea eta dinamizatzailerak izatea.	Normalkuntza batzordean proposatutako jarduerak aurrera eramaten lagundu.	HNAT eta ikasleen ordezkariak	Ikasturtean zehar	Denetarikoa
Esku-hartzeak ikasgelaz kanpo	Ikasleak EUSKARALDIAn parte hartzen animatzea.	Ikasleen balorazioa	EBETEko proposatutako jarduerak aurrera eramaten.	HNB	Abenduan	EBETEren proposamena

2.2. Ikasleak: komunikaziorako konpetentzia

Eragin esparrua	Helburua	Ebaluazio adierazlea	Jarduera	Nork	Noiz	Baliabideak
-----------------	----------	----------------------	----------	------	------	-------------

6. orrialdea 12 (e)



ulibbarri programa



Eragin esparrua	Helburua	Ebaluazio adierazlea	Jarduera	Nork	Noiz	Baliabideak
Ahozko interakzioa sustatzen duten metodologiak	Bertsolaritzaren bitartez ikasleen komunikazio gaitasuna hobetzea	Ikasle eta irakasleen balorazioa.	3.mailako ikasleak agur bertsuak sortu 4.mailakoei ikasturte amaierako jaialdirako. 4. mailako ikasleak agur bertsuak sortu irakasleei ikasturte amaierako jaialdirako. NOLEGAn sartua.	Euskara irakaleak	3.hiru hilekoan	Ordenagailua, Internet, papera...
Ahozko interakzioa sustatzen duten metodologiak	Ikasleen ahozko komunikazio konpetentzia hobetzea.	Ikasleen ahozko konpetentzia hobetu da.	Ahozko errutinak sortu gelan.	HNAT eta arloko irakasleak	Ikasturtean zehar	EBETEren proposamena

Ahozko interakzioa sustatzen duten metodologiak	Ikasleen ahozko komunikazi ora ko kompetentzia hobetzea.	Ikasleen ahozko komunikazioa hobetu da.	Ikasleek ahozko azalpenak eman gelakideen aurrean arlo guztietan.	Arloko irakasleak	Ikasturtean zehar	PPTak, Internet, testuak...
Ahozko interakzioa sustatzen duten metodologiak						
Idazmena irakurmena	Euskararen kalitatea zaindu beharraz jabetzea.	Ikasleen parte-hartzea	Kaleko edo toki publikoetako karteletan ikusten diren itzulpen okerrak bilduma egin.	Euskara irakasleak	2. hiru hilabetean	Kortxoak, ordenagailua, argazki kamara, papera, boligrafoak...
Idazmena irakurmena	Ikasleen komunikazi ora ko kompetentzia hobetzea.	Komunikaziorako kompetentzia hobetzea lortu da.	Irakurmena landu arlo guztietan.	Arloko irakurmena	Ikasturtean zehar	Testuak
Idazmena irakurmena	Ikasleen komunikazi ora ko kompetentzia.	Ikasleen idazlanen kalitatea.	Idazlanak egin arlo guztietan.	Arloko irakasleak	Ikasturtean zehar	Testuak
Liburutegia	Liburutegia erabilera handitzea.	Ikasleek maileguan hartutako liburu kopurua.	Ikasleak liburutegira eraman, irakurketaz goza dezaten.	Irakasleak	Ikasturtean zehar	Liburuak
Irakaskuntzarako euskarri digitalak	Ikasleek euskarazko euskarri digitalak ezagutzea eta erabiltzea.	Ikasleen balorazioa	Ikasleei euskarazko euskarri digitalen berri eman eta erabili ikasgelan.	HNB	Ikasturtean zehar	Euskarazko euskarri digitalak

2.3. Ikasleak: erabilera

Eragin esparrua	Helburua	Ebaluazio adierazlea	Jarduera	Nork	Noiz	Baliabideak
Esku-hartzeak ikasgelan erabilera sustatzeko	Hitanoa lantzea eta erabiltzea	Erabilera handitzea	Ahal den egoera gehienetan hitanoa erabili irakasleok ikasleekin.	Irakasleak	Ikasturtean zehar	Hitanoa
Esku-hartzeak ikasgelaz kanpo erabilera sustatzeko	Ikasleak elkar ezagutzea eta haseratik harremanak Euskaraz sustatzea	Ikasle-irakasleen behaketa	1.DBHko ikasleek bi eguneko irteera ikastetxetik kanpo.	Orientatzailea eta tutoreak.	Urrian	Autobusa



Eragin esparrua	Helburua	Ebaluazio adierazlea	Jarduera	Nork	Noiz	Baliabideak
Esku-hartzeak ikasleen espazio digitalean erabilera sustatzeko	Euskarak espazio digitalean duen presentzia handitu beharraz ohartzea ikasleak.	Euskarazko espazio digitalen erabilera.	EUMako web orrian dagoen "Interneten ere lehenengo hitza euskaraz" kanpainan parte hartu.	Irakasleak	Urrian	UEMAko web orria
Esku-hartzeak ikasleen espazio digitalean erabilera sustatzeko	Ikasleek euskarazko espazio digitalak ezagutu eta erabiltzea.	Ikasleen balorazioa	Ikasleei euskarazko espazio digital desberdinak ezagutarazi eta erabil ditzaten animatu.	HNB eta irakasleak	Ikasturtean zehar	Euskarazko espazio digitalak.

2.4. Ikasleak: euskal kulturaren transmisioa.

Eragin esparrua	Helburua	Ebaluazio adierazlea	Jarduera	Nork	Noiz	Baliabideak
Ezagutza	Esaera zaharren eta esapide jatorren erabilera bultzatzea.	Txokoan jarritako esaera zaharren eta esapideen kopurua.	Esaera zaharren eta esapideen txokoan ikasleek ezagutzen dituzten esaera zaharrak eta esapide jatorrak jarri. (NOLEGAn sartua)	HNB eta euskara irakasleak	2. hiruhilekoan	Kortxoak, paperak, Internet...
Ezagutza	Eskolako edukiez kanpoko ezagutza izatea ikasleek.	Ikasleen balorazioa	Kontalariak ekarri ikasgeletera. NOLEGAn sartua.	HNB	3. hiruhilekoan	Hitza, galdetegia...
Ezagutza	Euskal kultura ezagutu eta gozatu.	Ikasleen balorazioa	Durangoko azokara joan.	Euskara irakasleak	Abendua	Autobusa
Ezagutza	Euskal kulturaren arloko plataforma desberdinak ezagutzea.	Euskarazko plataformak ezagutu dituzte.	Imanol Epelderen "Bideo pilulak" ikusi.	HNB eta irakasleak	Urria	Imanol Epelderen "Bideo pilulak" bideoak
Ezagutza	Euskara eta lan mundua eskutik doazela ikustea.	Ikasleen balorazioa.	"Ikas2deak programa"ko hizlari bat ekarri. NOLEGAn sartua.	HNB	Hizlariarekin adostutako data	Hizlariak eskatutakoak, balorazio orria...

Ezagutza	Idazleekin harreman zuzena izatea.	Ikasleen balorazioa	Idazleak ikastetxean kanpainan parte hartu. Gure eskaera onartzen ez badute, jarduera gure kasa bideratu. NOLEGAn sartua	HNAT eta euskara irakasleak	Idazlearekin adostutako data	Liburuak, Internet...
Kontsumoa	Euskal kultura ezagutu eta kontsumitzea.	Ikasleen balorazioa	Durangoko musika eta disko azokara joan.	Euskara irakasleak	Abendua	Autobusa, dirua
Kontsumoa	Euskal kultura ikasleengana hurbiltzea.	Ikasleen parte-hartzea.	"Kultura Eskola" programan parte hartu.	Eskolaz kanpoko jardueren arduradunak	Artistekin adostutako data	Artistek eskatutakoak
Kontsumoa	Euskal musikarako zaletasuna piztea.	Bideoklipen balorazioa	Gaur egungo eta garai bateko abestiekin bideoklipak grabatu. NOLEGAn sartua	HNB eta irakasleak	Azaroan eta abenduan, Euskararen egunerako.	Audioak, kamara grabagailuak, jantziak, apaingarriak, paperak....

8. orrialdea 12 (e)

Eragin esparrua	Helburua	Ebaluazio adierazlea	Jarduera	Nork	Noiz	Baliabideak
Kontsumoa	Ikasleak euskal kultura kontsumi dezaten animatzea.	Ikasleen balorazioa	Imanol Epelderen "Bideo pilulak" ikusi.	Euskara irakasleak	Urria	Imanol Epelderen "Bideo pilulak"
Kontsumoa	Ikasleek euskal musikariak ezagutu eta musikaz disfrutatzea.	Ikasleen balorazioa	"Musikariak ikastetxeetan" programan parte hartu. NOLEGAn sartua.	Zuzendaritza eta musika irakaslea	Musikariar ekin zehaztutako data.	Musikariak ekarritakoak eta ikastetxeari eskatutakoak, balorazio orria...
Kontsumoa	Ikasleen irakurzaletasuna piztea.	Irakurritako liburu kopurua.	Irakurtzeko liburu gustagarriak eskaini eta aukera zabala eman.	Irakasleak	Ikasturtean zehar	Liburuak
Sorkuntza	Bertsoaren teknikak ezagutzea eta bertsoak sortzea.	Sortutako bertsoak	Ikasleek eguerdiko bertso tailerrean parte hartu. NOLEGAn sartua.	HNAT eta bertsolaria (oraindik zehaztu gabe)	Ikasturtean zehar	Internet, paperak...

Sorkuntza	Euskara eta sormena uztartzea.	Ikasleen partaidetza	Hieroglifikoen lehiaketa. NOLEGAn sartua.	Euskara irakasleak eta Plastikako irakasleak.	2. hiruhilekoan	Papera, boligrafoak, urna, sariak...
Sorkuntza	Euskara eta sormena uztartzea.	Partaidetza	Literatur lehiaketetan parte hartu.	Euskara irakasleak	Ikasturtean zehar	Ordenagailuak.
Sorkuntza	Ibarra Galtzakomik lehiaketan parte hartzea.	Partaideen kopurua.	Ibarra Galtzakomik lehiaketan parte hartu dezaten animatu ikasleak.	HNB, plastika irakasleak eta euskara irakasleak	Urria	Papera, margoak...

2.5. Irakasleak

Eragin esparrua	Helburua	Ebaluazio adierazlea	Jarduera	Nork	Noiz	Baliabideak
Komunikaziorako konpetentzia	Euskara eta euskal kulturaren arloko hainbat berri elkar trukatzeko.	Bidaltzen diren ohar kopurua.	Artikuluak eta informazio jarri irakasle gelako kortxoan, irakasleen arteko hausnarketa eta eztabaidarako, adibidez: Bost minutu...	Euskara mintegia	Ikasturtean zehar	Papera, kortxoa...
Komunikaziorako konpetentzia	Euskararen inguruan irakasleek dituzten zalantzak argitzea.	Argitutako zalantza kopurua	Irakasleei zalantzak argitzeko laguntza eskaini.	HNAT eta euskara irakasleak	Ikasturtean zehar	Hitza
Komunikaziorako konpetentzia	Ikastetxeko irakasleen euskara maila mantendu eta hobetu.	Autoebaluazioa	Arauen berri eman.	HNB	Ikasturtean zehar	Posta elektronikoa, hainbat web orri, "Bost minutu"...
Komunikaziorako konpetentzia	Irakasleen euskara maila hobetzea. Jatorrizko euskarazko materialak sortzeko ahalmena bultzatzea.	Autoebaluazioa	IRALE deialdiaren berri eman eta matrikula bideratu	HNAT	Ikasturte amaieran	Posta elektronikoa
Komunikaziorako konpetentzia	Irakurzalet asu na piztea irakasleen artean.	Irakur-txokoan parte hartzea. Irakurritako liburuen kopurua.	Irakurri eta solasaldian parte hartu.	HNB eta 111 akademiako moderatzaileak.	Ikasturtean zehar	Liburuak



Eragin esparrua	Helburua	Ebaluazio adierazlea	Jarduera	Nork	Noiz	Baliabideak
Irakasleak, eredu eta eragile	Hitanoa erabiltzea.	Erabilera handitzea.	Ahal den egoera gehienetan irakasleok hitanoa erabili beste irakasle batzuekin eta ikasleekin	Irakasleok	Ikasturtean zehar	Hitanoa
Irakasleak, eredu eta eragile	Klaustrokid eok hizkuntzari dagokionez eredu izatea.	Behaketa eta autoebaluazioa.	Irakasleok gure artean euskaraz egin.	Irakasle guztiok	Ikasturtean zehar	

2.6. Administrazio eta zerbitzuetako langileak

Eragin esparrua	Helburua	Ebaluazio adierazlea	Jarduera	Nork	Noiz	Baliabideak
Komunikaziorako konpetentzia	Atezainaren eta bulegariaren hizkuntza kalitatea eta eta ezagutza maila hobetzea.	Irakurritako liburu kopurua.	Euskal liburuen tertulian parte hartzera gonbidatu.	HNB	Ikasturtean zehar	Nobelak
Komunikaziorako konpetentzia	Atezainaren eta bulegariaren hizkuntza kalitatea eta eta ezagutza maila hobetzea.	Parte-hartzea.	Irakurketa txokoan parte hartzera gonbidatu.	HNB	Ikasturtean zehar	Liburuak
Komunikaziorako konpetentzia	Euskararen inguruan irakasleek dituzten zalantzak argitzea.	Argitutako zalantza kopurua	Zalantzak argitzeko laguntza eskaini AZLei.	HNAT	Ikasturtean zehar	Hitza
Komunikaziorako konpetentzia	Prestakuntza aukerak eta hobetzeko baliabideak ezagutzea eta erabiltzea.	Prestakuntza-aukerak eta hobetzeko baliabideak ezagutzen eta erabiltzen dituzte.	Prestakuntza aukerak eta hobetzeko baliabideak ezagutarazi.	HNB	Ikasturtean zehar	Korreo elektronikoa

AZLak, eredu eta eragile	AZLen ohiko harremanetan lehen hitza euskaraz izatea.	Erabilpena	Lehenengo hitza euskaraz esan.	HNB eta AZLak	Ikasturtean zehar	Hitza...
AZLak, eredu eta eragile	Atezainak eta bulegariak kanpotik datorrenari edo telefonoz eta e-mailez harremanetan jartzen den jendeari euskaraz ematea zerbitzua.	Atezainak eta bulegariak arreta euskaraz ematen dute.	Atezainak eta bulegaria zerbitzua euskaraz eman dezaten animatu.	HNB, atezaina eta bulegaria.	Ikasturtean zehar	Telefonia, posta elektronikoa...
AZLak, eredu eta eragile	Autobus gidariak eredu eta eragile izatea.	Ikasleen balorazioa	Autobusean euskarazko irratia edo musika jarri. NOLEGAn sartua.	HNB eta autobus gidariak	Ikasturtean zehar	Irratia

3. Familiak eta Komunitatea

3.1. Familiak

Eragin esparrua	Helburua	Ebaluazio adierazlea	Jarduera	Nork	Noiz	Baliabideak
-----------------	----------	----------------------	----------	------	------	-------------

10. orrialdea 12 (e)




Eragin esparrua	Helburua	Ebaluazio adierazlea	Jarduera	Nork	Noiz	Baliabideak
Familiekiko harremanetarako hizkuntza irizpideak	Guraso bilerak ahal den neurrian euskara hutsean egitea.	Euskararen erabilera %75	Euskaraz ulertzen ez duten gurasoei xuxurlariaren laguntza eman.	HNB, Zuzendaritza eta tutoreak.	Ikasturtean zehar	Hitza
Familiekiko harremanetarako hizkuntza irizpideak	Gurasoekiko harremanak ahal den neurrian euskara hutsean burutzea.	Ahozko jardunaren %75	Ahozko komunikazioa ahal den neurrian euskaraz egin.	Ikastetxeko kideak	Ikasturtean zehar	Hitza, telefonia...

Familiekiko harremanetarako hizkuntza irizpideak	Gurasoekiko harremanak ahal den neurrian euskara hutsean burutzea.	Bidalitako idazkien %75	Idatzizko informazioa euskara hutsean zabaltzea eta eskatu duenari elebrietan luzatu.	Klaustrokid eak eta administraria.	Ikasturtean zehar	Posta elektronikoa eta papera.
Etxearen lankidetzak: familiak, eredu eta eragile	Gurasoak hizkuntzaren transmisioan duten garrantziaz ohartarazi.	Gutuna bidaltzea edo guraso bileran aipamena egitea.	Euskaraz egin dezaten animatu.	HNB	Ikasturte hasieran	Inika, guraso bilera.
Familiek komunikaziorako konpetentzia hobetzeko esku hartzeak	Euskaraz ez dakiten gurasoei Euskara ikasteko aukerak ezagutaraztea eta ikasteko baliabideak eskaintzea.	Euskara ikasten ari diren guraso kopurua.	Ikasturte bukaerako bileran, euskara ikasteko dituzten aukerei buruzko informazioa banatu tutoreek.	HNB eta tutoreak	Ikasturte bukaeran	Triptikoak eta matrikula orriak

3.2. Komunitatea, eskolaz kanpoko jarduerak

Eragin esparrua	Helburua	Ebaluazio adierazlea	Jarduera	Nork	Noiz	Baliabideak
Elkarlana euskararen aldeko elkarte eta eragileekin	Euskara bultzatzeko dauden elkarten gonbidapen eta n parte hartzea.	Parte hartutako ekimenen kopurua.	Elkarteek antolatutako zenbait ekintzatan ikasleak parte hartzea animatzea.	HNB	Ikasturtean zehar	Kartelak, teknologia berriak...
Elkarlana euskararen aldeko elkarte eta eragileekin	Galtzaundiko "Hezkuntzara Euskara Mahaia" deitutako bileretara joan eta proposatutako ekimenetan parte hartzea.	Parte-hartzeak kontabilizatu.	Galtzaundik proposatutako edo antolatutako jardueratan parte hartu.	Galtzaundiko aktibazio arduraduna eta HNAT.	Ikasturtean zehar	Galtzaundik proposatutakoa eta bidalitakoa.
Elkarlana euskararen aldeko elkarte eta eragileekin	Herriko eta ikastetxeko Hizkuntza Normalkuntzarako Planak uztartu.	Kolaborazioen kontabilizazioa.	Ikastetxeko eta herriko HNParen arduradunarekin bileretan adostu aurrera eramango diren ekimenak.	Ikastetxeko HNAT eta udaleko HNParen arduraduna	Ikasturtean zehar	Materialak



Eragin esparrua	Helburua	Ebaluazio adierazlea	Jarduera	Nork	Noiz	Baliabideak
Elkarlana euskararen aldeko elkarte eta eragileekin	UEMArekin elkarlanean aritu.	Saioen ondorengo emaitzak.	UEMAk proposatutako ekimenak (HEDATU programako unitate didaktikoak, galdetegiak...) aurrera eraman eta Udalekuei buruzko informazioa ikastetxean zabaldu.	UEMAko arduraduna eta euskara irakasleak.	2. eta 3. ebaluaketa.	UEMAk bidalitakoa
Elkarlana aisialdiaren esparruko talde eta elkarteekin	Aisialdiaren esparruko ekintzak euskaraz izan daitezen ziurtatzea.	Hizkuntza proportzioa.	Aisiaren esparruko jarduerak euskaraz egin daitezen proposatu.	Aisiako irakasleak, entrenatzailea k, monitoreak eta HNB.	Ikasturtean zehar	Posta elektronikoa, telefonoa...

12. orrialdea 12 (e)



B H I I N S T I T U T U A

Aralar bidea, z/g.
Tfnoa: 943 89 91 35
20260 - ALEGIA
012951aa@hezkuntza.net
www.aralarbhi.blogspot.com

Alegian, 2022ko urriaren 26ean

Irene Marcos Gonzalez

Ordezkaritza Organu Goreneko Lehendakaria